



ONDARROAKO UDALA

ONDARROAKO UDALAREN ADIERAZPEN INSTITUZIONALA KATALUNIAKO EGOERAREN AURREAN

1. Ondarroako Udalak ziurtatzen du demokraziaren adierazpen baketsua, indibiduala zein kolektiboa, gauzatzea eta herriari hitza ematea ez dela delitua. Hori horrela, urriak 1eko erreferenduma tresna demokratiko eta zilegia izan zela, eta Kataluniak bezala Euskal Herriak ere, berezkoa dutela etorkizuna erabakitzeke eskubidea.
2. Ondarroako Udalak argi eta garbi adierazten dute ezin direla justifikatu Auzitegi Gorenak eta Estatuko botereek Kataluniako agintari eta gizarte eragileei bizkarreratutako auzia eta ezarritako zigorrak.
3. Ondarroako Udalak nabarmentzen du Kataluniako Procesaren aurkako auziak eta epaiak Zuzenbide Estatuaren itxuragabetzea dakartela eta ezbaian jartzen dutela espainiar demokraziaren homologazioa nazioartean.
4. Ondarroako Udalak nabarmentzen du euskal herritarrei zuzenean eragiten digula Estatu espainiarraren erantzun bortitzak, izan ere herrien borondatea era demokratiko eta baketsuz erabakitzea mozten baitu eta arazo politikoari tribunalen indarrez, 155. Artikuluaren ezarpenez edo erabakitze eskubidearen alde egiten dutenei edonolako neurri bidegabeak ezarriz irtenbide elkarrizketatu eta negoziatua bilatu orde eta herriari galdetu beharrean.
5. Ondarroako Udalak Estatuko botereei eskatzen die, espetxean dauden preso politikoak berehala aske utz ditzala eta era berean, erbesteratu politikoen aurkako auzibideak bertan beher utz ditzala.
6. Ondarroako Udalak elkartasuna adierazten die Kataluniako preso eta erbesteratu politikoei nahiz haien etxekoei hala nola Kataluniako herriari eta erakundeei, eta gipuzkoarrei dei egiten diete bat egin dezaten herriari hitza ematearen aldeko ekimen baketsuekin, demokraziaren eta askatasunaren alde.

BOZERAMAILEA

Zunbeltz Bedialauneta

EH Bildu



BOZERAMAILEA

Maria Dolores Etxano

EAJ/PNV